

GURE PROIEKTUA : LEJ arropa adimentsua

Urbi institutotik gatozen 3 ikasle gara. Batxillergoa egiten ari gara eta gure izenak Érika González Vázquez, June Calvo García eta Leire Fernández Alonso dira.

Adimenduneko arropak eskaintzen dituen enpresa bat egingo dugu, baina, arropa ez da normala izango, ikuspegi berritzaile eta teknologiko bat izango baitu. Gure enpresak salduko duen arropa ez da ohikoa izango, ez ditugulako ekitaldi baterako soilik edo eguneroko erabilerarako bakarrik erabiltzen den arropa alokatuko, guk salduko dugun arropak erabiltzailearen osasuna eta ongizatea hobetzea dute helburu, monitorizatzen baitute gure osasuna sentsoz edo eskumuturreko adimenduen laguntzaz, sentsoz eta eskumuturreko horiek arropan txertatuta egongo dira eta datuak denbora errealean bidaliko dituzte aplikazio batera, jarrera, jardura fisikoa eta ongizatea hobetzen laguntzeko.

Aplikazio honek aukera ematen dizu erabiltzailearen gorputz-egoerari buruzko datuak denbora errealean jasotzeko eta datu horiek aplikazio batean gordeta izango dituzte. Aplikazio horren bidez, erabiltzaileak bere jardura fisikoaren jarraipena egin dezake; bihotz-taupadak neurtu, edozein osasun arazo kardiobaskular baldin badute app honek esango die, izerdi-maila kontrolatuko du, kirolariak zenbat ur galtzen ari den zehazteko. Hori funtsezkoa da deshidratazioa saihesteko eta horrela, erabiltzaileak bere hidratazio-egoera hobetzeko neurriak har ditzake. Gainera, aplikazio honek jarrera hobetzeko gomendioak jasotzeko aukera ematen du, postura desagokiak detektatuz eta egokitze aholkua eskainiz. Horrez gain, ongizatea optimizatze baliabideak eskura izan ditzake, hala nola, arnasketa-teknikak, erlaxazio-eraketak eta lo-kalitatearen jarraipena egiteko tresnak. Honek guztiak, osasun orokorra hobetzen laguntzen du eta erabiltzaileari bere eguneroko jardueretan eraginkortasun handiagoa izateko aukera eskaintzen dio.

Horrez gain, arropak erabiltzailearen gorputz-tenperatura monitorizatuko du eta tenperaturan aldatetaren bat edo arriskuen bat hautematen badu, erabiltzaileari alerta bat bidaliko dio aplikazioaren bitartez. Honek ez du bakarrik erosotasuna areagotzen, baizik eta osasuna babesteko prebentzio-neurriak ere indartzen ditu. Gorputzaren tenperaturaren aldaketa txikiek ere osasunean eragin nabarmenak izan ditzakete, horregatik, arropa adimendunak tenperatura aldaketak detektatu eta erabiltzaileari ohartaraziz, gaixotasunen prebentzioa eta osasunaren zaintza hobetzen ditu. Gainera, teknologia honek, gaixotasun baztuen garapena prebenitzeaz gain, bizi-kalitatea eta segurtasuna handitzen ditu, erabiltzaileak bere osasunaren kontrol hobea izan dezan.

Gure arropa waterproof izango da, beraz, busti egiten bada ez zaio ezer gertatuko nahiz eta sentsoz bat eduki barnean. Abantail itzela da, euria egiten duen egun batean, adibidez, korrika ateratzen zarenean zure osasuna neurtzeko erraz eta arropa buztitzeko arazorik gabe.

Ze arazo?

Jarduera fisikoa sustatzeko eta jasangarritasuna sustatzeko erabili gabe edo soberan geratu den arropa garestia berrerabiliko dugu. Arropa hau gure estilo eta balioekin egokituz, "arropa berria" sortuko dugu, baina prezio eskuragarrian eskainiko dugu. Horrela, bezeroei interesgarria egingo zaie gure produktua erostea, bai ingurumenarekiko kontzientziagatik, bai arropa erabilgarri eta erakargarriagatik. Gainera, gure arropa eta sentsoreak egiteko ez ditugu plastikorik erabiliko, beraz, ingurumen aldetik jasangarria izango da.